

## IRAKURKETA A24

Gaur, emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunean, hemen elkartu gara, gure egunerokotasunean bizitzen ditugun zapalkuntza ezberdinak salatzen.

) Hemen elkartu gara historian zehar eraildako emakume guztiak gogora ekartzeko.

) Hemen elkartu gara emakumeen kontrako eraso guztiak kondenatzeko.

) Hemen elkartu gara emakumeen alde borrokatu izan duten norbanako guztiak goraiatzeko.

) Hemen elkartu gara azken 15 urteetan Euskadin emandako 51 erailketak salatzen.

) Hemen elkartu gara 2016an bakarrik Euskadin 3.774 eraso egon direlako.

) Hemen elkartu gara salatzen erabakia hartu duten emakume ausart guztien adorea aldarrikatzeko. Baita salatu ez dutenena ere.

) Hemen elkartu gara isildu izan dituzten ahotsen orde oihukatzen.

## LECTURA 24N

Hoy, en el día contra la violencia hacia las mujeres, nos reunimos para denunciar las distintas opresiones que vivimos en nuestra cotidianidad.

) Nos reunimos aquí para recordar a todas las mujeres asesinadas a lo largo de la historia.

) Nos reunimos aquí para condenar todas las agresiones contra las mujeres.

) Nos reunimos aquí para ensalzar a todas las personas que han luchado a favor de las mujeres.

) Nos reunimos aquí para denunciar los 51 asesinatos ocurridos en Euskadi.

) Nos reunimos aquí porque, sólo en el año 2016, ha habido 3.774 ataques.

) Nos reunimos aquí para reivindicar el valor de todas las mujeres valientes que han decidido denunciar. También el de aquellas que no han denunciado.

) Nos reunimos aquí para gritar en lugar de las voces que han quedado silenciadas.

) Hemen elkartu gara gizarteak zalantzan jartzen dituen kasu guztiak egi bihurtzeko eta guztiei indarra eta babesa emateko

Mezu honen bidez aldarrikatu nahi dugu emakumeenganako indarkeria gaur egun errealitate bat dela eta errealitate hori ez direla soilik erailketak. Indarkeria hau modu askotan azaleratzen da gizarte heteropatriarkal honetan: jaiotzatik inposatzen diguten kolore arrosa, emakumearen sexualizazioa, etxeko lanak emakumeon egitekotzat hartzea, betidanik gu sexu ahultzat hartu izana, lan munduan jasaten dugun bazterketa, bai soldatan bai lana lortzerakoan, gauean etxera bakarrik bueltatzean beldurrez joan behar izatean, erasotzaileek izaten duten inpunitatea ikustean, gizartearen kondena falta erasoan aurrean eta mila adibide gehiago.

Ez gara geldi geratuko bidegabekeria guzti hauen aurrean, egunero hiltzen ari baikaituzte.

**ASKI DA!**

**ATZO, GAUR ETA BETI, GORA BORROKA  
FEMINISTA, GORA EMAKUMEON BORROKA!**

) Nos reunimos aquí para convertir en verdad todos los casos que la sociedad pone en duda y para apoyar y proteger a todas las víctimas.

A través de este mensaje queremos reivindicar que la violencia hacia las mujeres es una realidad hoy en día y que esa realidad no se integra sólo de asesinatos. Esa violencia se manifiesta de muchas maneras en esta sociedad hetero-patricarcal: desde el nacimiento nos imponen el color rosa, la sexualización de la mujer, asumir como tarea propia de las mujeres las labores domésticas, desde siempre asumir que somos el sexo débil, la discriminación que sufrimos en el mundo laboral tanto en los sueldos como en las posibilidades de lograr un trabajo, en el tener que ir con miedo al volver a casa sola por la noche, al ver la impunidad que tienen los agresores, a la falta de condena de la sociedad frente a las agresiones y mil ejemplos más.

No nos quedaremos quietos y quietas ante todas estas injusticias por las que nos están matando todos los días.

**BASTA YA!**

**AYER, HOY Y SIEMPRE, VIVA LA LUCHA  
FEMINISTA, VIVA LA LUCHA DE LAS MUJERES!**